

Ada Lovelace, lehen programatzailea

LONDRES, 1815EKO ABENDUAREN 10A. Augusta Ada Byron, gerora King abizena hartuko zuena, Lovelaceko kondesa jaio zen. Anne Isabella Milbanke eta Lord Byron poeta ezagunaren alaba, gurasoak Adak hilabete besterik ez zuela banandu ziren, eta poetak Ingalaterra utzi zuen betiko. Amak txikitatik matematika eta logikarenenganako interesa txertatu nahi izan zion, aitaren “erokerietatik” urrunduko zuelakoan.

Gaztetan Charles Babbage konputazioaren aitzindaria ezagutu zuen, eta amak bultzatutako matematikako ezaguerei esker harekin lanean hasi zen. Babbagek kalkulu makina bat diseinatu zuen; makina funtzionamenduan sekula ikusi ez zuen arren, konputazioaren historian giltzarria izan zen, erabiltzen zituen kontzeptuengatik.

Ada Lovelaceren lana, nagusiki, Babbagek egiten eta diseinatzeko zuena dokumentatzea zen, baina bere ekarpenak ere egin zituen. Kalkulu jakinak egiteko makinan sartu behar ziren jarraibideak idatziz jaso zituen. Hau da, programa bat idatzi zuen, problema ebazteko konputagailuak eman beharreko urrats sorta, eta programazio lengoia deskribatu zuen, gehiegi sakondu ez arren. Hortaz, historiako lehen programatzailea izan zen. Zehazki, Ada Lovelaceko kondesak sortutako programak Bernoulliren zenbakien balioak kalkulatzeko erabiltzen zituen.

Urte askotan, Babbageren itzalean lausotu zituzten Adaren merezimenduak “emakumezko ergel, harroputz eta zoroa” zientziari halako ekarpenak egiteko gai ez zela argudiatuta.



Ada Lovelacek (1815-1852), Lord Byron poetaren alabak, aitzak baino kontu prosaikoagoetara bideratu zuen inspirazioa.

hedatu zen. 1979an, AEBetako Defentsa Sailak Ada izena ipini zion programazio lengoia bati eta Microsoftek haren aurpegia erabili izan du sistema eragilearen lizentzia benetakotzat egiaztatzeko marka gisa. Berandu, baina txikitatik amak sustatuta egindako bidearen saria jaso zuen azkenean, aita sekula arbuia ez zuen arren. “Matematikari poetikotzat” zuen bere burua eta Lord Byronen ondoan dago ehortzita, hil ondoren sekula ezagutu ez zuen aitaren ondoan atsedean hartzea baitzen bere nahia. ■

Baina Lovelaceren dokumentazioa aztertuta garbi dago, konputagailua Babbagek sortu arren, Lovelacek gailu hark egin zezakeenaren ideia zabalagoa zuela. Babbageren helburua, nagusiki, taula matematikoak inprimatzea zen, makina diseinatu zuenean. Bere laguntzaileak, ordea, askoz etorkizun oparoagoa aurreikusi zuen konputagailuarentzat; esaterako, tramankulu horiek egunen batean musika egiteko gai izango zirela uste zuen.

Makinak zenbait arauben arabera sinboloak manipulatzeko gai izango zirela eta zenbakiek, kuantitatez gain, entitateak ere adieraziko zituztela uste zuen Lovelacek. Nozio hori esplizituki artikulatu zuen lehena izan zen eta, hala, kalkularen eta konputatzearen arteko funtsezko trantsizioaren mugarria ezarri zuen.

Lovelace hil eta ehun bat urtera hasi ziren haren ekarpenak gauzatzeko; besteak beste, berak iradokitako txartel perforatuen erabilera



Arrastoak

Antzinaroko Phaselus ontzia berreraiki eta saiatuko dute



ANTZINAKO ERROMAN gerra nahiz merkataritzarako erabili ohi zen itsasontzi bat berreraikiko du 2014an Murat Arslan sortzaile eta buru duen ekimen batek. Eraiki ondoren, Turkia hegoaldeko Egiptorainoko bidea egingo du *Phaselus*-ek. Ontzia Antzinaroan erabiltzen ziren materialez

eraikiko dute, eta eskifaia garai hartako dietaz elikatu beharko du. Berregitea erabat zehatza izan dadin erromatar anforak ere egingo dituzte jaki horiek kontserbatzeko. Ondo bidez, finantzazio aurreikuspenak betez gero hiru eta sei hilabete artean beharko dituzte ontzia bukatzeko. ■